BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL

XII LEGISLATURA — XII. AGINTALDIA

Serie B **Información, control e impulso** — **Informazinoa, kontrola eta sustapena** **B Saila**

XXII **Pregunta escrita** — **Idatzizko erantzun-eskea** **XXII**

Número 533a — Bilbo, 2026ko irailaren 24a / Bilbao, 24 de septiembre de 2026 — 533a alea

ASUNTO: Atención psicológica a víctimas de violencia machista.

AUTOR: Ilardia Olangua, Beatriz

Admisión a trámite

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 22 de septiembre de 2026, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

Tramitación: Admitir a trámite.
Calificación: Conformidad con la calificación propuesta por el autor

Procedimiento de Tramitación: Normal
Plazos:
Remisión respuesta escrita por la Diputación Foral: 15 días
Otros acuerdos
Ordenar Publicación en el BOJJGG
Ordenar traslado a los efectos de lo previsto en la regulación aplicable
Regulaciones:
Reglamento: Artículo 170 y 92

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 22 de septiembre de 2026.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri**

A LA MESA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

Bea Ilardia Olangua, portavoz suplente de EH Bildu, formula las siguientes PREGUNTAS PARA SU RESPUESTA POR ESCRITO al Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, acerca de la atención psicológica a víctimas de violencia machista Esnatu.

JUSTIFICACIÓN

ESNATU, el servicio foral de atención psicológica a víctimas de violencia machista se ofrece en diferentes puntos de atención de Bizkaia.

A fin de conocer la accesibilidad real del servicio, su oferta horaria, las esperas y la ubicación de la atención en Bilbao, formulamos las siguientes PREGUNTAS PARA SU RESPUESTA POR ESCRITO al Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad:

1. Actualmente, ¿qué días de la semana y en qué horario se ofrece la atención psicológica del programa ESNATU en cada uno de los puntos de atención?

GAIA: Indarkeria matxistaren biktimentzako arreta psikologikoa

EGILEA: Ilardia Olangua, Beatriz

Izapidetzeko onartzea

Aitatutako gaia dala-ta, hurrengo Erabagiak hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiak 2026ko irailaren 22an izandako bileran:

Izapidea: Izapidetzeko onartzea
Sailkapena: Egileak proposatutako sailkapenagaz ados

Prozedurea: Arrunta
Epea:
Aldundiak idatzizko erantzuna bialtzeko: 15 egun
Beste erabagi batzuk
BBNAn argitaratzeko agintzea
Bialtzeko agintzea, araudi aplikagarriak aurreikusitakoaren ondorenetarako
Araudi oinarria:
Araudia: 170. eta 92. artikuluak

Guztiak horren jakitun egon daitezan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2026ko irailaren 22an.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri.**

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI

Bea Ilardia Olangua EH Bilduren bozeramaile ordeak IDATZIZKO GALDERA HAUEK egiten dizkio Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari Esnatu indarkeria matxistaren biktimentzako arreta psikologikokoaren inguruan.

ARRAZOIKETA

ESNATU indarkeria matxistaren biktimentzako arreta psikologikoko foru-zerbitzua Bizkaiko hainbat arreta-gunetan eskaintzen da.

Zerbitzuaren benetako irisgarritasuna, ordutegi-eskaintza, itxaronaldiak eta Bilboko arretaren kokapena ezagutzeko, IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERA hauek egiten zaizkio Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari, idatziz erantzun ditzan:

1. Gaur egun, asteko zer egunetan eta zer ordutegitan eskaintzen da ESNATU programaren arreta psikologikoa arreta-gune bakoitzean?

Solicitamos los datos desglosados del centro de Bilbao y de los centros de atención descentralizados (Markina-Xemein, Zalla, Ugao-Miraballes, Durango, Gernika-Lumo, Igorre, Bermeo, Portugalete, Leioa y Getxo), especificando:

a) Días de la semana en los que se ofrece atención.

b) Horario.

c) Número de horas semanales de atención.

d) Número de personas profesionales asignadas.

e) Posibilidad de adaptar el horario a las necesidades de las personas usuarias.

2. ¿Cuáles de estos puntos de atención ofrecen actualmente citas de tarde?

3. Cuando una mujer no puede acudir en los días u horarios que se le ofrecen en el punto de atención correspondiente, ¿qué opción se le ofrece? ¿Se deriva a otro punto de atención, se remite al centro de Bilbao o entra en otra lista de espera?

4. ¿Cuáles son actualmente las esperas en el programa ESNATU? Solicitamos los datos desglosados por cada uno de los puntos de atención, incluyendo el centro de Bilbao, especificando:

   a) Tiempo medio y máximo de espera entre la solicitud de atención o la derivación y la primera cita de valoración.

   b) Tiempo medio y máximo de espera desde la primera cita de valoración hasta el inicio efectivo de la intervención psicológica.

   c) Espera media y máxima total desde la solicitud inicial hasta el inicio efectivo de la intervención.

   d) Número de mujeres que se encuentran en espera de la primera cita de valoración.

   e) Número de mujeres que, a pesar de tener realizada su valoración, se encuentran en espera de iniciar su intervención.

5. Cuando una mujer es derivada a Bilbao u otro punto de atención por incompatibilidad horaria, ¿su espera computa desde la fecha de solicitud inicial? ¿Esta derivación puede suponer la pérdida de su orden en la lista de espera o la prolongación de la espera?

6. ¿Prevé el departamento establecer horarios de atención de tarde u horarios más flexibles en los puntos de atención que actualmente atienden sólo por la mañana?

7. ¿En qué sede o ubicación física de Bilbao se presta actualmente la atención e intervención presencial del programa ESNATU? Solicitamos la dirección exacta.

8. ¿La atención o intervención del programa ESNATU se realiza total o parcialmente en el edificio del Centro de Crisis de Violencia Sexual? En caso afirmativo, solicitamos especificar:

   a) Desde cuándo se ofrece la atención del programa ESNATU en dicho edificio.

   b) Si la totalidad o solo parte de la atención del programa se da en dicho edificio.

   c) Qué tipo de atenciones e intervenciones se llevan a cabo en dicho edificio.

   d) Si los espacios, las personas profesionales y los circuitos de atención del programa ESNATU y del Centro de Crisis de Violencia Sexual están diferenciados.

   e) Si el programa ESNATU utiliza otras sedes o ubicaciones en Bilbao y, en caso afirmativo, cuáles.

Bilbao, 16 de septiembre de 2026

Beatriz Ilardia Olangua,
Portavoz suplente del grupo EH Bildu

Datuak Bilboko zentroaren eta arreta-gune deszentralizatu bakoitzaren arabera banakatuta ematea eskatzen da (Markina-Xemein, Zalla, Ugao-Miraballes, Durango, Gernika-Lumo, Igorre, Bermeo, Portugalete, Leioa eta Getxo), honako hauek zehaztuta:

a) Asteko arreta-egunak.

b) Ordutegia.

c) Asteko arreta-ordu kopurua.

d) Esleitutako profesional kopurua.

e) Ordutegia erabiltzaileen beharretara egokitzeko aukera.

2. Arreta-gune horietatik zeinek eskaintzen dituzte gaur egun arratsaldeko hitzorduak?

3. Emakume batek dagokion arreta-gunean eskaintzen zaizkion egun edo ordutegietara joaterik ez duenean, zer aukera eskaintzen zaio? Beste arreta-gune batera bideratzen al da, Bilboko zentrora igortzen al da edo beste itxaron-zerrenda batean sartzen al da?

4. Zein dira, gaur egun, ESNATU programako itxaronaldiak? Datuak arreta-gune bakoitzaren arabera banakatuta ematea eskatzen da, Bilboko zentroa ere barne hartuta, honako hauek bereiziz:

   a) Arreta-eskaera edo bideratzea egiten denetik lehen balorazio-hitzordua egiten den arteko batez besteko eta gehieneko itxaronaldia.

   b) Lehen balorazio-hitzordutik esku-hartze psikologikoa benetan hasten den arteko batez besteko eta gehieneko itxaronaldia.

   c) Hasierako eskaeratik esku-hartzea benetan hasi arteko batez besteko eta gehieneko itxaronaldi osoa.

   d) Lehen balorazio-hitzorduaren zain dauden emakumeen kopurua.

   e) Balorazioa eginda izan arren, esku-hartzea hasteko zain dauden emakumeen kopurua.

5. Emakume bat ordutegi-bateraezintasunagatik Bilbora edo beste arreta-gune batera bideratzen denean, haren itxaronaldia hasierako eskaeraren egunetik zenbatzen al da? Bideratze horrek itxaron-zerrendan zuen hurrenkera galtzea edo itxaronaldia luzatzea ekar al dezake?

6. Sailak aurreikusten al du arratsaldeko arreta edo ordutegi malguagoak ezartzea gaur egun goizez bakarrik artatzen duten arreta-guneetan?

7. Bilbon, zer egoitza edo kokaleku fisikotan ematen da gaur egun ESNATU programaren arreta eta esku-hartze presentziala? Helbide zehatza adieraztea eskatzen da.

8. ESNATU programaren arreta edo esku-hartzea, osorik edo zati batean, Sexu Indarkerien Krisi Zentroaren eraikinean ematen al da? Baiezkoa bada, honako hauek zehaztea eskatzen da:

   a) Noiztik ematen den ESNATU programaren arreta eraikin horretan.

   b) Programaren arreta guztia ala haren zati bat baino ez den bertan ematen.

   c) Zer arreta eta esku-hartze mota egiten diren bertan.

   d) ESNATU programaren eta Sexu Indarkerien Krisi Zentroaren espazioak, profesionalak eta arreta-zirkituak bereizita dauden.

   e) ESNATU programak Bilbon beste egoitza edo kokalekurik erabiltzen duen eta hala bada, zein.

Bilbon, 2026ko irailaren 16an

Beatriz Ilardia Olangua,
EH Bildu taldeko taldeburuordea